



The Billy Jeans taldekoen kontzertua berezia izan zen kultur etxeko lehen solairuan ostiral arratsaldean. Lehenengo aldiz emanaldi akustikoa eskaini zuten.

Donostiatik The Billy Jeans, eta Bergaratik Belceblues

Lasarte-Orian musika eskaintza zabala dagoela nabarmendu zen berriro ostiralean

Iparramerikako musika tradizionalaren kutsua duen musika dastatu zuten herriko musika zaleek ostiralean: Arratsalde-iluntzean, Kultur etxean Donostiako The Billy Jeans Karlos Ngema eta lagunak musika taldearen denetarikoinuak, funk, rock, reage, soul, rap eta hip-hop ukituekin, eta gauean Jalgin Bergarako Belceblues taldearenak. Izenak dioten moduan blues doinuak eskaini zituzten euskaraz abestuenak. Infer izeneko diska berria aurkeztu zuen Hirukoteak giro bikaina jarriaz. Tarteka Asier Elorza abeslari eta bajujoleak tronpeta ere hartu zuen. •



Belceblues taldekoak blues-a euskaraz egin daitekeela erakutsi zuten. Infer diskoa aurkeztu zuen Bergarako hirukoteak.

Txintxarrikerik ez da izango ostiralean. Hurrengo martxoaren 23an astelehena argitaratuko da

ALBISTEAK ■ 2

Batukada jotzen ikasi nahi dutenek ostiralero dute aukera Zumaburun

ERREPORTAJEA ■ 3

Go!azen film-eko hiru aktore Landaberri-DBH ikastetxean izan ziren ostiralean

KRONIKA ■ 4

LAB sindikatuak gogor salatu zuen ostiral eguerdian Kelan enpresako langileen egoera

ERREPORTAJEA ■ 5

Amiantoarekin lotu du Osalanek Michelingo langile ohi baten heriotza


GURUTZETA SAGARDOTEGIA

Zatoz txotx egitera!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



Go!azen filmeko aktoreak bisitan

■ Aitor Saumell "Asier" eta Inma Fernández "Desi" Landaberrin izan ziren ostiralean ■ Gazte Klubeko neska mutilak ere joan ziren ikastetxera ■ Irakutrezin-eko galderei erantzun zieten

TXINTXARRI

Go!azen film musikaleko bi aktore Lasarte-Orian izan ziren ostiralean. Irakutrezin aldizkarirako elkarrizketa egin zioten Aitor Saumell eta Inma Fernández-i, hurrenez hurren, Go!azen-en Asier eta Desire (Desi) izan diren aktoreei, Landaberri-DBH ikastetxean elkartu ziren 12-15 urte bitarteko neska mutil koadrilak. Ondoren gazte klubeko gaztetxoak ere izan zuten bi aktoreekin egoteko aukera.

Ostiralean arratsaldeko 5etan heldu ziren Aitor Saumell eta Inma Fernández aktore gazteak Lasarte-Oriara Kuadrillategik gonbidatuta. Jalgin kafe bat hartu eta Landaberri DBH ikastetxera abiatu ziren. Zain zuten han bertako ikasle koadrila Irakutrezin aldizkarian argitaratuko duten elkarrizketarako galdera sorta egiteko prest. "A ze puntualitatea" izan zen aktoreek lehenengo entzun zutena.

Ondoren hainbat galdera egin zizkieten 12-15 urte bitarteko ikasleek. Argi eta garbi ikusi zen gaztetxoek filma ikusita dutela, filmari eta aktoreei buruz ondo informata daudela, baina, jakinmin handia zuten eta denetariko galderak luzatu zizkieten bi bisitarietara: Go!azen pelikularen casting eta grabaketari buruzkoak, filmean abestutako kantuei buruzkoak, euren bizitza pertsonalari buruzkoak edota, besteak beste, etorkizunerako dituzten asmoei buruzkoak. Bi aktoreek aurreratu zuten telebistan serie bat grabatzeko proposamena jaso dute eta beraz, "Asier", "Desi" eta filmeko beste protagonistek jarraipena izango dute telebistan.



Go!azeneko aktoreek herriko gaztetxoekin jakin minari erantzun zioten. Elkarrizketa Irakutrezin-en hurrengo alean argitaratuko da.

Ondoren gazte klubeko haurrak heldu ziren Landaberrira. Hauek ere gogo biziz zeuden Go!azen-eko aktoreak ikusteko. Aitor eta Inmak filmeko antzeko itxura zuten ostiralean, euren txapelak dotore jantzita etorri ziren. Aitor Saumell-ek esan zuenez, bera bera da filmean eta filmetik kanpo eta beraz, grabaketarako ez zuela asko aldatu beharrik izan.

Elkarrizketa egin ondoren, Kuadrillategikoek zein Gazte Klubekoek taldeko argazkia atera zuten bi aktoreekin eta bukaeran autografo batzuk ere sinatu zizkieten bildutakoiei.

Lasarte-Oriako Kuadrillategik antolatuta bisita. Aktoreek adierazi zuten zein filma estreinatu ondoren sarri ibili dira horrela, ikastetxetan hitzaldiak eman eta gaztetxoekin galderei erantzunez. •



"Asier" eta "Desi" Landaberrira joan aurretik Jalgi kanpoan.

Euskarazko lehen film musikala

Go!azen izan da euskaraz grabatu den lehen film musikala. Euskal Herriko gaztetxoekin artean arrakasta izan du eta hori argi geratu zen ostiralean. Landaberrin bildu ziren gazteekin ondo ezagutzen dute filma eta bertako aktoreak ere bai.

Iaz azaroan estreinatu zen hainbat abesti eta koreografia dituen Go!azen pelikula. Ostiralean aktoreek aurreratu zuten, orain jarraipena izango du eta telebistan serie bihurtuko da. Protagonista izan diren gazteek ia guztiak hartuko dute parte hilabete batzuek barru grabatuko diren telebistako kapituluetan. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Herriko batukadaren burrunba abiatzear da Zumaburutik

■ Ttakun-ek antolatutako taldearen prestaketa saioak martxoaren 27an hasiko dira ■ San Pedrotarako erritmoak gertatu behar dituzte ■ Hasiberrientzat ikastaroa eskainiko dute

Perkusio tresna ezberdinak jotzean ateratzen diren soinuak eta doinuak dira batukadaren oinarria. Kalejiran, danbor, bonbo, atabal, tan-tan edo beste edozein perkusio tresnak jo eta erritmo bizian dantzan egiten dute. Iazko San Pedrotan herritarrek ikusi eta gozatu ahal izan zuten herriko batukarien goxotasun eta erritmo-etaz. Aurten ere ostiralero elkartuko dira Ttakunek bultzatutako taldekoak euren burrunba partikularra prestatzeko.



Iaz batukada ikastaroan parte hartu zutenek giro bikaina jarri zuten sanpedrotan. Aurten ere jaietan kalejiran ateratzeko erritmoak prestatzeko asmoa dute.

TXINTXARRI

Batukadan trebatu nahi duenak ostiraletan Zumaburu ikastolako lokalean du hitzordua arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean. Ttakunek iaz antolatu zuten lehen aldiz batukada ikastaroa eta lehen urteko arrakastaren ondoren aurten ere elkartuko dira herriko batukariak. Lokala lortzeko zenbait arazo gainditu ondoren martxoaren 27tik aurrera hasiko dira batukada taldekoak euren erritmoak, dantzak eta koreografiak prestatzen.

Lehen hilabetetan bi

maila izango dira. Iaztik ari direnak euren garapena jarraituko dute eta hasiberrientzat ikastaroa eskainiko dute. Helburua berriak trebatzen diren heinean denen artean talde bakarra osatzea da uda garaian izango diren ekitaldietan parte hartzeko. Iaz bezala San Pedrotan zenbait kalejira egin nahi dituzte batukada taldekoek herria girotzeko. Iaz hainbat herritar izan zituzten atzetik segika kalez kale eta gozoz daude aurten iazkoa hobetzeko. Hilabete

hauetan erritmo berriak prestatzen ariko dira. Bestalde, Antzerki Astean dantza garaiak egiten duen herriko taldearekin batera emankizun bikaina eskaini zuten iaz Kultur Etxean eta aurten errepikatze asmoa dutela esan digute Ttakuneko batukada taldekoek.

Hasiberrientzat ikastaroa

Apirilean hasita ikastaroa izango da, beraz, batukada jotzen hasi nahi dutenentzat. 15 urtetik aurrera (DBH3) nahi duten guztiek eman

dezakete izena Ttakunen bulegoan martxoaren 27.a baino lehen. Egun horretan arratsaldeko 7etan bilera egingo da Zumaburu ikastolako lokalean eta ondoren ostiralero elkartuko dira. Taldeak baditu 20 bat musika tresna, neurri ezberdinetakoa danbor, atabal, surdo, agogo, tan tan,... ikastaroan erabiltzeko. Ostiraletan arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean bitaldetan banatuta jardungo dira tresna horiei ahalik eta etekinik handiena atertzeko.

Batukadak afrikar kulturaren

du oinarria. Kontinente honetan betidanik erabili dituzte danborrak euren festa eta tradizioan. Azken finean musika tresnarik zaharrenak dira seguraski perkusio tresnak. Jakina da batukadak berez Afrikako herrietan edota afrikar sustraia dituzten herrietan daudela, Afrikatik eramandakoen ondorengoak bizi diren tokietan, alegia, baina mundura Brasiletik zabaldu da nagusiki. Han milaka danbor jole eta dantzari elkartu ohi dira kalejiratan. Sanbarekin duen lotura aipatzen da sarri. •

Giro ederra Buruntz-Azpik antolatu zuten calçot janean

Martxoaren 7an, larunbata, Buruntz-Azpi elkarteak calçot jana antolatu zuten bere elkartean.

65 heldu eta 15 haur bildu ziren, Banyoleseko Josep, Maria eta Enric lagunek ekarritako mila inguru calçotak dastatzera.

Calçot jana

Calçota tipularen kimua da eta parrillan egina jan ohi da

Katalunian. Larunbatean, Josep eta Ericen calçotak prestatu zituzten eta Buruntz-Azpiko kideek arkume errea. Era honetara, betiko calçot jana egin zuten.

Antolatzaileek adierazi digutenez, guztiak oso gusturatu egon ziren.

Gainera, bazkal ostean, trikitixa eta txalaparta doinuak ere egon ziren girotzeko eta bazkaria jaisteko. •





LAB sindikatuak deituta, hainbat herritarrek Lasarte-Oriako Kelan Elektronika eta Andoaingo Cortusa enpresen Lan Erregulazio proposamenak salatu zituzten ostirala eguerdian.

Lasarte-Oriako Kelan Elektronika S.A. enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazio espedienteari baiezkua eman zion Lan Delegaritzak eta urriaren 1a geroztik, hasi ziren laneko egoera berriarekin, aste barruko

bost egunetarik hirutan lanean eta beste bitan langabezian egin dituzte langileek sei hilabete zehar. Orain, langile batzuei beste proposamen bat egin die enpresak: diru kopuru baten truke kaleratzea. Hori eta Andoaingo

Cortusa enpresako langileek jasaten duten egoera salatzeke, LAB sindikatuak ostiralean manifestazioa egin gure herriko kaleetan zehar *Kelan eta Cortusa lanpostuen defentsan. Euren krisia euren kontura* lelopean.

ANAIAK
JANTZI-DENDA

Udaberria dator !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

Kelan-eko langileak lanpostuen alde borrokan

■ Urriaz geroztik, astean hiru egunetan egiten dute lan eta orain enpresak kaleratzeak proposatu ditu

Ostirala eguerdian LAB sindikatuak manifestazioa egin zuen gure herriko kaleetan zehar.

Hipodromo etorbideko egoitzatik abiatu zen martxak Kelan Elektronika enpresak Kale Nagusiko industrialdean duen fabrika zuen helburu. Buruan *Kelan eta Cortusa lanpostuen defentsan. Euren krisia euren kontura*.

Era honetara, enpresa horretako hainbat langilek eta Andoaingo Cortusa enpresakoek jasaten duten erregulazio egoera salatu nahi izan zuten.

Proposamen berria

Jokin Txapartegi Kelanen LABeko arduradunak adierazitakoaren arabera, "Kelaneko 9 langile EREan jarri gintuzten duela 6 hilabete, nahiz eta gu

aurka agertu. Egun 8 gaude, batek lanpostua utzi zuelako. Enpresak 11 langile ditu eta langile batek bakarrik sartzen ditu jardueraz kanpoko orduak."

Hori gutxi balitz, "EREan gauden bost langileri egin digute proposamen berria, kaleratzea eta horren truke dirua ematea," aipatu digu Jokinek, "eta, hala ere, gertzen direnek EREan jarraituko lukete."

Gainera, etorkizuna ere beltza dute Kelaneko langileek "mehatxu modura agian 6 hilabeteetan itxi beharko dutela eta guztiak kalera botako gaituztela esan digute, kalte ordainik gabe. Egungo krisi egoera dela eta, jendea dudana dago. Aukera gutxi dago, dirua hartu eta kalera

joan edo lanean jarraitu eta agian krisia dela eta, hilabete batzuetan kalean izan," azaldu digu Kelaneko langileak.

EREak ez dira irtenbidea

Era berean, Jon Martin Lasarte-Oriako LABeko kidearekin hitz egiteko aukera izan genuen manifestazioaren ostean, "ERE batek ezer ez duela konpontzen argi utzi nahi dugu. Ez da soluzio bidea." Eta zera gaineratu du, "enpresa honek irabazi handiak izan ditu krisia baino lehen, orain EREa ezarri eta kaleratzeak ari da proposatzen."

Krisiaren eta honelako egoeren aurrean herriko langileen alde lan egingo dutela ere azaldu digu "guk herriko lanpostuak defendituko ditugu. Krisia ez dugu langileek sortu, baina krisia ordaintzen lehenak gara eta ez dugu hortik pasa nahi. Egoera ez da erraza eta, orain ere, langileekin bat egiten dugu, industria eta langileak defendituz." •

"Bost langileri egin digute proposamen berria, kaleratzea eta horren truke dirua ematea"

Amiantoarekin lotu du Osalanek Michelineko langile ohi baten heriotza

Antonio Lekuona duela aste gutxi zendu zen, biriketako minbizi batek jota



Joan den urtarrilean eta otsailean izan ziren Osalaneko teknikariak Lasarte-Oriako Michelinen.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Michelin enpresako langile eta langile ohi askok amiantoa arnastu dutela, eta ondorioz, osasun arazo larriak jasan ditzaketela frogatuz jo du Osalanen txosten batek. Hain zuzen ere, duela aste gutxi zendu zen Antonio Lekuona andoaindarrak egin zuen eskaeraren harira landu du txostena Osalanek. Lekuonak 27 urtez egin zuen lan Michelinen, eta pleurako mesotelioma aurkitu zioten iaz. Gaitzak jota hil zen joan den otsailaren 26an.

Lekuonaren kasuak eraginda hasi zen ikertzen Osalan Lasarteko Michelinen. Pleurako mesotelioma biririkak babesten dituen mintzari eragiten dion minbizia da, eta denbora luzean amiantoa arnastu duen jendeari eragiten dion gaitza da bereziki. Ondorioz, Osalaneko teknikariak bitan izan ziren Michelinen, urtarrilean eta otsailean, Lekuonaren gaitzaren eta 27 urtez bere lantoki izandakoaren artean loturarik ba ote zegoen argitzeko. Michelineko arduradunek ez Gasteizen eta ez Lasarten ez dutela inoiz amiantorik erabili

esan badute ere, Osalanek argitaratu berri duen txostenak dio amiantoaren zantzuak aurkitu dituztela Lasarten, eta frogatuz jo du horrek Lekuona hil duen gaitzarekin lotura duela.

Isolamendu termikorako

Antonio Lekuonak 1960a eta 87a bitartean egin zuen lan Lasarteko Michelinen. R tailerlean aritu zen, eta urte horietatik gehientsuenak soldatzaile eta hidien arduradun gisa eman zioten; hau da, besteak beste material eta erremintak konpontzera eramateaz eta hodiak aldatzeaz arduratzen zen.

Osalanen txostenaren arabera, hodi horiek isolamendu termikorako materialek babestuta zeuden; amiantoa, tartean. Horretaz gain, txostenak dioenez, Michelinen barne gidak berak aginduta erabili behar zituzten langileek amiantozko estalkiak, altzariak eta baita langileak berak ere babesteko, su hartzeko erraztasuna duten materialengandik. Asviame Amiantoaren Biktimen Elkarteko bozera- maile batek azaldu duenez, lehen oso ohikoa zen halako enpresetan amiantoa erabil-

itzea, baita balaztetako zapa- tetan ere.

Amiantoaren erabilpena ez ezik, prebentzio eza azpimarratu du Osalanek Lasarte-ko Michelinen inguruan egindako txostenean. Teknikari-ek ondorioztatu dute ziurrenik Lekuonak ez zuela amiantoa ez arnasteko babes- garri individualik erabili. Era berean, Michelinek ez omen ditu martxan jarri 90eko hamarkadaren bukaeratik indarrean dauden amiantoaren aurkako protokoloak.

Horrenbestez, Lekuonak Michelinen lan egin zuen artean ia urtero azterketa medikua egin bazioten ere, ez zizkioten amiantoarekin lan egiten dutenei dagozkien azterketa zehatzak egin, eta beraz ez zioten ezer aurkitu. Asviameko bozera- mailearen arabera, proba horiek egin izan balizkiote gerora izan zuen gaitzaren lehen zantzuak aurkitzeko aukera izan- go zuten.

Asviameko bozera- maile honek argitu du Lekuona zena

izan dela orain arte amiantoaren kontura Osalanera jo duen Lasarteko Michelineko langile bakarra. Teknikari-ek txostena osatzeko fabrikara egin zuten bigarren bisita- ldian lau langilerekin hitz egin zuten, baina gainontzean "oso lekuko gutxi" izan direla dio. Gaur egun 1.605 lagunek egi- ten dute lan Lasarteko Miche- linen, baina guztira kaltetuak "ehunka" izan daitezkeela uste du Asviameko bozera- maileak.

Langile ohiak ere eragin

Osalanen txostenak aldateta handia ekar dezake. Alde batetik, Lekuonaren alarguna- ri dagokion pentsioari dago- kionez. Bestetik, kontu batzuk oraindik zehazteke dauden arren, Michelinek prebentzio neurri zorrotzagoak hartu beharko ditu hemendik aurre- ra. Amiantoarekin harreman- tan izan diren fabrikako langileekin segurtasun proto- koloa zehatz- mehatz bete beharko dute, eta baita amiantoari dagokion azter- keta medikua egin ere. Horretaz gain, erretiratutako langileek ere egin beharko dituzte azterketa mediku zehatzak, Osalanek hala aginduta. •

Aurrekariak Lasarte-Orian

Amiantoari lotutako gaixotasunei buruzko gero eta albiste gehiago ateratzen ari dira argitaratu. Joan den urrian bertan Jose Luis Aranbururen kasua izan zen albistegai Txintxarrin. Lasarteoriatar honek ia 50 urtez egin zuen lan Luzuriaga enpresan. Lekuonak izan zuen gaitz bera aurkitu zioten, eta Osalanen txostenak frogatu zuen amiantoa arnastu zuela.

Luzuriagak helegitea jarri

bazuen ere, epaileak garbi zehaztu zuen Aranbururen gaixotasuna amiantoak eragin zuela, eta beraz, laneko gaixotasuna zela. Aranburu Gabonetan zendu zen.

Lasarte-Oriako Michelin fabrikari lotuta, Antonio Marigilen kasua ere ikertzen ari direla esan du Asviameko bozera- maileak. Lasarteoriatar honek taldeburu moduan egin zuen lan Michelinen, eta 2002an hil zen. •

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Mintza praktika afari giroan

- Solaskide programan ari direnek afaria egin zuten larunbatean Arrieskalleta elkartearen
- 32 lagun elkartu ziren elkarrekin afaldu eta euskaraz jarduteko asmoarekin

Ttakun Kultur elkarteak kudeatzen duen Solaskide egitasmoan hainbat herritarrek parte hartzen dute. Euskaldun zahar eta berriak astero solasaldi bat izateko elkartu egiten dira, baina gutxi batzuk ezagutzen dute haiek bezala elkartzaren beste herritar, bikote edo talderik. Ostiralean, izan zuten aukera Arrieskalleta elkartearen, 30 bat elkartu baitziren mahaiaren inguruan bapoz afaldu eta euskaraz mintzatuz ondo pasatzeko.

TXINTXARRI

Egun 46 lagun dabilta Solaskide egitasmoan, 29 euskaldun berri eta 17 euskaldun zahar. Horieta gutxi batzuk ezagutzen dute elkar.

Mailu Arrutik Solaskideko arduradunak azaldu digunez, "azken urtetan ez dute ezer egin talde guztiek elkarrekin, beraz, inpresio aldaketa eta harremanak izateko aukera paregabea izan dute aforitan egon diren 32 lagunek."

Helburua, "elkar ezagutzeko egiten dugu. Euskaldun zahar eta berriek beraien taldeetakoak bakarrik ezagutzen dituzte," azaldu digu Solaskideko arduradunak, "solaskideek talde sententzia eta elkar babestea bilatzen da."

Solaskide egitasmoa harreman sarea zabaltzeko aukera paregabea dela azpimarratu du Mailuk eta afariari esker. programaz kanpo elkar ikus-



Jokuen bidez ezarri zioten solaskide bakoitzari eseri behar zuen lekua. Eta bigarren platera beste toki batean jan zuten: jokua eta solasa izan ziren nagusi afarian.

ten dutenean harreman euskaraz izan dadin bultzatu nahi da.

Afari berezia

Era honetara, elkar ezagutza bideratzeko afari berezia izan zuten Solaskide egitasmoko

lagunek. Kontua ez zen soilik elkartu eta jatea izan: solaskideek bi jokutan parte hartu behar izan zuten.

Arrieskalleta elkartera iritsi eta solaskide bakoitzak papertxo bana atera behar izan zuten eta plater gainetan

jarrita zeuden izenarekin lotu eta bere eserlekua bilatu behar izan zuten.

Horrela, afaltzeko garaian ez zuten beraien solaskideekin bat egingo, baizik eta izen horrek harremanak zuen taldearekin.

Honetaz gain, bigarren plateran lekuz aldatu arazi zituzten. Horretarako, mahai gainean torloju eta tuerkak jarri eta beraiek probatu behar zuten bakoitzarenak norenarekin bat egiten zuten.

"Jokuen helburua, elkar ezagutzeko eta euskaraz harreman berri bat hastea da," aipatu digu Mailu Arrutik.

Afari batekin hasi dira, baina behar bada aurrerantzean jarduerak gehiago egingo dituztela aurreratu du gainera Solaskideko arduradunak, hala nola, Oinatz taldeko irteeretan parte hartzea, Xumela korua ezagutzeko, antzerkia, euskal dantzak edo sorgin dantza ikasi edo zikiro afaria elkarrekin joatea. •

“ Solaskide egitasmoa harreman sarea zabaltzeko aukera paregabea da lasarteoriatarrentzat

Gazteen bertso afari-merienda asteazkenean Arrieskaletan

Arrieskaleta elkarteak herriko bertso eskolarekin batera bertsolari gazteen afari merienda antolatuko du datorren asteazkenean. Etzi, martxoaren 17an, Arrieskaleta elkartearen, inguruko bertsolari gazteek kantatuko dute afaltzeraren hurbiltzen diren aurrean. Arratsaldeko 8etan hasiko da bertso afaria.

Afari meriendara joan nahi dutenek izena eman beharko dute elkartearen bertan edota Unairi 606 40 90 95 telefono zenbakian. 20 urtetik behar-koek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 20 urtetik gorakoek 10 euro afari meriendaren truke.

Lasarte-Oriatik Ane Labakak kantatuko du eta inguruko herrietatik, besteak beste, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Hernanitik beste zenbait bertsolari gazte etorriko dira.

Arrieskaleta elkartearen urtero antolatzen dute bertso afariaren bat edo beste. Iaz, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde oiartzuarrak kantatu zuten. Bi bertsolari gazte hauek saio bikaina burutu zuten giro apartean. Laster beste bertso afari bat prestatzen ari dira elkartearen, baina momentuz, asteazkenean bertsolari gazteak gogoz arituko dira eta bertsozaleei saiora joateko gonbidapena luzatu diete. •



Astelehena, 16

Zine soziala

LO MEJOR DE MI filmaren ondoren Alcer elkartearen hitzaldia *Gorputz organoen emaitza* gaiatzat hartuta. Danok Kideren V. Zinema Soziala zikloan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:30ean.

Asteartea, 17

Hitzaldia

"Gaurko krisi ekonomikoa" izeneko hitzaldia emango du Iñaki Erauskin Iurrita ekonomilari lasarteoriatarrak. Arrieskalleta elkartearen, arratsadeko 19:30ean

Astelehena, 23

Zine soziala

EL DIABLO SE VISTE DE PRADA filma eman eta Acabe elkarteak hitzaldia eskainiko du *Anorexia* gaiatzat hartuta. Danok Kide elkarteak antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.

Osteguna, 26

Zinea

LA OLA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Angel Nuñezen argazkiak Jalgin

Angel Nuñez donostiarrak toki ezberdinetan aterarako argazkiak hilabete osoan egongo dira Jalgi tabernako paretetan zintzilikatuak. Zuri beltzean ateratakoak dira eta hiriak zein pertsonak erretratatu ditu. Paisaia begiralea izena jarri dio erakusketari.

JALGI KAFE-ANTZOKIAN
MARTXOAN EGUNERO

Ostirala, 27

Kontzertua

DONOSTIAKO SANTA CECILIA ABESBATZAK kontzertua eskainiko du Danok Kideren IV. Musika Topaketen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Ostirala, 27

Antzerkia

OHEAN antzezlan Glu glu taldearen esku Korrika kulturalearen barruan. Kulturetxean, 22:00etan, EUSKARAZ



Larunbata, 28

Kontzertua

AURORA PARRA sopranoak, J. PEREZ DE AZPEITIA pianojolearen laguntzaz, kontzertua eskainiko du. Kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 29

Zinea

WINX: ERREINU GALDUAREN SEKRETUA filma haurrentzat. Sarrera, 3,15 euro. kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ

Oharrak

Korrika 16

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interesa duzen talde, erakunde edo besteren batek Munteri AEK euskaltegira dei dezake edo bertara jo dezake. 943 37 28 63

Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemate goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzea animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbizia antzemateko eta prebenitzeko.

Marrazki eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun elkarteak jakin arazten du, martxoaren 20 eta 21ean ez dela pintura eta marrazki klaserik egongo Manuel Lekuona Kultur etxea itxia dago eta.

Kirolletako agenda

FUTBOLA

Osteguna 19

9:30ean, Ostadar-Lengokoak (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Harane, Usurbilen.

9:45ean, Ostadar-Lagun Onak (Infantil Txiki Kopa) Urnietan.

Larunbata 21

10:30ean, Ostadar-Urola B (Infantil Txiki Kopa) Michelinean.

12:00etan, Ostadar-Anaitasuna (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinean.

15:30ean, Ostadar-Real Union (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinean.

17:15ean, Ostadar-Beti Ona (I. Jubenila, igoera f.) Michelin.

BOLA-JOKOIA

Igandea 22

10:00etan, Ostadarreko bolo sailak lehendakari txapelketan parte hartuko du, Altzan.

Kirolletako oharra

San Jose Eguna

Martxoaren 19an, Udal Kirol Gunea (Michelin) itxita egongo da. Kiroldegia, aldiz, jai egunetako ordutegia izango du, 9:00etatik 13:00etara dago zabalik.

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Eskutitzak

Zorionak Usurbil

Errausketaren Aurkako Koordinadorak poza eta itxaropena agertu ditu Usurbilen Atez Ateko hondakinen bilketa martxan jarriko delako martxoaren 16tik aurrera. Euskal Herrian lehenengo saikera da, baina urteetako esperientzia duten Catalunya eta Mallorcako 70 herri baino gehiagotan egiten duten bilketan oinarrituta dago.

Koordinadorak Usurbilgo herria lehen pauso garrantzitsu hau ematera ausartu delako zoriontzeez gain,

beste herri eta hiriei Atez Ateko prozesuarekin abiatzeko eskatzen die, horrela hondakinen birziklapena gaur egungo %20tik %80ra pasa baitaiteke eta zabortegei beharra proportzionalki gutxitu.

Orain arte indarrean egon den hondakinen bilketa klasikoari agur esan eta Atez Atekoari ongi etorria emateko Usurbilgo herriak larunbaterako prestatu duen jaialdian parte hartuko du Koordinadorak, 13:00ean "Errausketaren aurka eta Atez Atekoaren alde" egingo

den kalejira antolatuz.

Era berean, herritar guztiei dei egiten die 14an Usurbilera ager daitezten, beraien begiz ikus dezaten zertan den Atez Ateko bilketa eta zer onura ekar dezaketen.

Honetaz gain, gogorarazi nahi dute aurrera darraielat Hondakinen Euskal Legea EAeko Legebiltzarrean eztabaidatu ahal izateko 30000 sinadura biltzeko erronkak, eta Usurbilgo ospakizunean ere han izango direla helburua lortzeko bultzada berri bat eman nahian. Honetara-

ko Legebiltzarrak lau hilabete epea eman zuen eta bi terdi pasa direnean, bilketa bide onetik doala adierazten dute, baina gizarteko eragile guztien inplikazioa beharrezkoa dutela horrelako helburu handia lortzeko: Lege bat gure hondakinen guztiak modu selektiboan biltzera behartuko duena eta hauen errausketa behin-betiko baztertuko duena.

Errausketaren aurkako mugimendua



Neska-mutil gehienek lepotik zintzilik eraman zuten etxera Atsobakarren zehar lasterka egin eta gero jasotako domina. Ur botilarik ez zen banatu, hondakin gutxiago sortzeagatik.

Euskara, kirola eta ekologia

- Eneko Castoren omenezko proban 300 bat haur aritu ziren igande goizean korrika
- Aurten berrikuntza, berrerabiltzen diren edalontziak eta hondakinak biltzeko edukiontzia

Urtero bezala euskarari eta kirolari bultzadaxo bat emanez giro bikainean burutu zen atzo goizean Eneko Castro atletaren omenezko XII. Euskal Krosa Atsobakar inguruan. Aurten hirugarren protagonista birziklapena izan zen: hondakin gutxiago sortzeko, ez zitzairen ur botila txikirik banatu parte hartzaileei. Berrerabiltzen diren edalontzietan eman zitzairen ura eta edukiontzi horiak jarri zituzten yogurra jan ondoren ontziak biltzeko. 300 neska mutilek hartu zuen parte krosean eta domina bana eraman zuten etxera.

JON ALTUNA

Landaberi ikastolak antolatzen duen euskal krosa ezusterik gabe burutu zen atzo. Goizean euri apur bat egin bazuen ere, eguerdirako giroa bikaina zen, partaidetza oso zabala izan zuen, 6 eta 14 urte bitarteko 300 haur inguru izan ziren, bakoitza bere adinekoekin Atsobakar parke inguruan prestatu zen zirkuituan lasterka. Probaren bukaeran domina bana jasotzen zuten denek, taldeko argazkia atera eta indarberritzeko baso bat ur eta yogurra jaso zituzten.

Aurten berrikuntza bat izan da: Eskola Agenda 21 jorratzen

ari dira Landaberrin, irakasle eta ikasleek hondakin gutxiago sortzeko egin daitezkeen ekimenak aztertzen eta lantzen dituzte, txikitatik birziklapena, ingurumena,... zertan diren ezagutzen joan daitezten.

Ingurumena zainduz

Irakasle, guraso eta ikasleen artean ingurumen batzordea jarri dute martxan eta krosa zerbait egiteko egokia zela ikusi zuten. Hondakin gutxiago sortzeko zer egin daitekeen aztertu zuten eta parte hartzaile bakoitzari ura eta yogurra ematen zaiela ikusita, bururatu zitzairen litroterdiko botila handiak eta berrerabiltzen diren plastikozko edalontziak erabiltzea.



Eneko Castoren gurasoek banatu zituzten opariak amaieran.

San Marcoseko Mankomunitatearen bidez 400 edalontzi alokatu zituzten horretarako eta lehen ehundaka plastikozko botila txiki banatzen ziren bitartean aurten jokabide garbiagoa izan dute.

Gainera plastikoa jasotzeko edukiontzi horiak jarri zituzten "birziklapen txokoa" neska mutilek eurek birziklapenean parte hartuz yogurraren ontziak biltzeko, eta birziklatzeko. Mikel Urruzola ikastola-

ko guraso eta gai honen inguruan lan egiten duenak adierazi zigun aurreko urteetan baino zabor eta hondakin askoz gutxiago sortu dutela aurtengo Krosean.

Bestela ez dira Krosaren izaera eta helburuak aldatu. Ez eta gurasoen jokabideak ere. Jendetza bildu zen Atsobakarren txikiaren ahalegina txalotu eta horien irudiak jasotzeko.

Amaieran parte hartzaile guztien artean kirol eta euska-

rarekin lotutako opariak banatu ziren zozketa bidez. Haurren artean lehiakortasuna baino, parte hartzea eta gozatzeko bultzatu nahi dituzte antolatzaileek. Sariak opari bihurtzen dira bezar Krosean.

Eneko Castoren omenez

Opariak Eneko Castro zena-ren gurasoek banatu zituzten Landaberi ikastolako antolatzaileekin batera. Lasarteko atletaren oroimenez antolatzen du urtero krosa ikastolako Guraso Elkarteak. Aurten 12a izan da.

Bataz beste 700 metro inguruko ibilbidea osatu zuten, adin bakoitzari zegokion erri-moan. Aurten DBHko ikasleak laguntza bikaina eman zutelako adierazi zuten antolatzaileek eta hauek hamaiketako eman zuten gaztetxoei euren borondate eta lan ona eskertzeko. Guz-tira adin ezberdinetako dozena bat lasterketa egin ziren. Erri-mo lastaian, helburua haurrek kirola eginez gozatzeko baita. Eta gero guraso eta seme-alabek denek elkarrekin eman zioten zirkuituari azken itzulia, tropel ikusgarria osatuz. •